



KIRIKINOKO NEGUKO - UDABERRIKO ESKAITZA

SORGIN ZAPATUAK

Laudioko udalarekin elkarlanean burutzen den proiektua da. Larunbat arratsaldeetan, 5 urtetik gorako haurrentzako euskarazko aisialdi eskaintza osatzea du helburu. 24 saio daude ikasturtean zehar eta hauek dira Kirikinok burutuko dituenak. Saio guztiak 17:30etatik 19:30ak bitartean dira, unean bertan ematen da izena eta dohakoak dira.

Urtarrilak 17, Lezeaga aretoan

DJ Kaktus, askaria eta neguko eskulanak

Otsailak 7, Lezeaga aretoan

Arabako herri inauteriak ezağutzen, neguko tostadak eta mahai jolasak

Martxoak 7, Lezeaga aretoan

Sorgina txirulina, askaria eta txapa eta mural tailer transfeminista

Martxoak 28, Gardeako eskola zaharrean

Udaberriko loreak estanzazio eta liburuxka tailerra eta sukaldaritza askaria

TERTANGAKO BARNETEGIA

Kirikinotik ikasturtean zehar bi asteburu pasa antolatu ohi ditugu. Hauen xedea, haurrek, hiru eguneko euskarazko aisialdi eskaintzaz gozatzea da, auzolana, talde lana, natura, hezkidetza eta zaintza bezalako balioetan oinarrituz.

Neguko egonaldia

Otsailaren 20, 21 eta 22 egunen bitartean Tertangako aterpetxean eta herrian burutuko da egitasmoa. 20012-2019 urteen artean jaioetako haurrei zuzendutako eskaintza da.

Prezioa

Kirikinoko bazkideak 85€ eta Kirikinoko bazkideak ez direnak 95€.

Izen ematea

Egonaldia baino hilabete bat lehenago zabalduko da izen emateko epea. Plaza mugatuak daude eta izenemateakirikino@gmail.com helbidearen bidez izena eman daiteke. Zalantzak 688 726 665 zenbakian argituko dira (14:00-18:00). Familia bilera egingo da txangora joan aurreko astean. Otsailak 17, izena emateko azken eguna.

BARATZE TAILERRAK

2019ko udaberritik Kirikino aisialdi taldeak baratzea du Laudioko udal ortu komunitarioetan. Bertan, adin guztietara bideratutako tailerrak burutzen dira asteburuetan, jaten dugararen gaineko kontzientzia hartzea helburu eta naturarekin dugun harremanetan eragiteko asmoarekin. Parte hartzeko, 688 726 665 zenbakira idatzi bertaratuko zarela abisatuz eta zalantzak izatekotan bertatik argituko dira.

Martxoak 1, Kirikinoren baratzean

11:00etatik 13:30etara

Apirilak 19, Kirikinoren baratzean

11:00etatik 13:30etara

Maiatzak 17, Kirikinoren baratzean

11:00etatik 13:30etara

Ekainak 7, Kirikinoren baratzean

11:00etatik 13:30etara



URTEAN ZEHAR HAINBAT OSPAKIZUN

Kirikinetik urtean zehar beste hainbat eragilerekin elkarleanean hainbat jardura antolatu ohi ditugu, jarraian 2026ko hainbat ekintza.

Otsailak 14, inauteriak

Goizean Aldai plazan: tailerrak eta jolasak

Otsailak 17, inauteriak

Arratsaldean Aldai plazan: puzgarriak eta txokolate jana

Martxoan zehar, Basoak 5 urte!

Egitarau ezberdinak: ikastaroak, tailerrak, ikuskizunak eta kontzertuak Basoan

Martxoak 26-27 gauean, korrika

Gauean korrika igaroko da Laudioko kaleetatik, zatoz gure kilometrora!

Apirilak 8 - 11 egunen biatrtean, auzolanak Basoan


11:00etatik aurrera, laster informazio gehiago

Apirilak 25, arratsaldean danborradako tailerrak

Arratsaldean zehar Laudion danborradarekin lotutako tailerrak

Ekainak 21, udako solstizioa Basoan

Ipuin kontalaria, jolasak eta tailerrak, txokolatea, erritua eta sua!



bestelako aisialdi bat posible da

ARRAKALETAN LORATUZ

BASOA GUNEAK 5 URTE!
Martxoak 1. 6, 7 eta 28an

Laudio institutua
Kirikino aisialdi taldea

bestelako aisialdi bat posible da



LAU
DIO
BHI
.eus



ARRAKALETAN LORATUZ

MARTXOAK 1

11:00 · Kirikinoren baratzean
BARATZE TAILERRA, UDABERRIKO BARATZEA

16:30 · Basoan
KALENDULA ETA IZPILIKU UKENDU TAILERRA

MARTXOAK 6 - 7

EGURREZKO LABEA EGITEKO IKASTAROA ETA
TAILER PRAKTIKOA

Martxoak 6 · 17:00 · Basoa gunean

Martxoak 7 · 10:00 · Basoa gunean

MARTXOAK 28

17:00 · Basoa gunean
TAILER EZBERDINAK
LAGUNEKIN BARATZEAN IKUSKIZUNA
(Bihar antzerki taldea)
TXOKOLATE JANA ETA BISITA GIDATUA

20:00
XENDRA TALDEA KONTZERTUAN

Mila esker bidea posible egin duzuen
guztioi, hau ez da hutsetik sortzen
Laudio Institutuaren eta Kirikino Aisialdi
Taldearen elkarlanaren fruitua da. Bestelako
aisialdi bat posible da, batu auzolanera!

Isasi bidea 3, Audio, 01400, Araba

PERTSONA GUZTIAK ONDO ETORRIAK, JARRERA GUZTIAK EZ



BAIETZ
100
BAZKIDE!

IZAN ZAITEZ BAZKIDE

Kirikinoko bazkideei esker egiten du aurrera gure proiektuak. Komunitate baten babesa ezinbestekoa baitugu egunerokoan. Baita ere, bazkideek egiten duten ekarpen ekonomikoa. Dena ez da eman ordea, bazkideek honako onureta z gozatzen dute:



Urtean, 20€ko prezioa du bazkidetzak, eta gehienez 5 kide bazkidetu ahal izango dira. Bazkidetzeko izenemateak kirikino@gmail.com helbidera idatzi dezakezu, zalantzak argitzeko 688 726 665 zenbakira deitu.